


PRAKTIKEN TXOSTENA

Historia Gradua 2.maila
Arkeologia
Irati Aranbarri Beristain

1.PRAKTIKA

ARKEOLOGIA HISTORIKOA



Historialari eta autore desberdinen artean ematen den eztabaida ohikoenetarikoa bat da historiaurrea eta aldi historikoen arteko muga zehaztearena. Honen inguruan iritzi desberdinak azaleratzen dira. Batetik, historialari askoren arabera, historia Mesopotamian idazkera sortu zen momentu berean hasten da. Beste batzuen arabera ordea, historiaren hasiera eremu bakoitzean garai desberdinetan hasi zen, izan ere, eremu batzuetan idazkera garatu zen unean, beste gizarte batzuek oraindik ez zuten ezagutza hau garatu. Nire iritzia bigarren teoria honakin doa erraturik. Historiaaren hasiera oso kontzeptu edo denbora entitate nahasia da eta ez diot zentzurik

ikusten Mesopotamian idazkera garatzen den momentuan munduko gainontzeko eremu guztietan historia hasi izana. Egiazki, oso zaila ikusten dut ezaugarri baten arabera zehaztea historiaren hasiera noiz izan zitekeen baina muga zehazteko orduan irizpide bat hartzerakoan uste dut idazkera moduko ezagutza bat erabiltzea dela modurik egokiena. Orduan bi arudio hauek kontuan hartuta nire aburuz egokiena munduko eremu desberdinetan historiaren hasiera garai denberdinetan kokatze da egokiena. Muga zehatz bat finkatu beharrezan prozesu bati buruz hitz egin beharko genuke, eremu bakoitzean bere denborak izan zituenak.

Bestalde, kontzeptuei dagokienez, “garai historikoen arkeologia” edo “arkeologia historikoa” kontzeptuek ez dute esanahi bera planteatzen den lekuaren edo joeren arabera. Izan ere, Ipar Amerikan, XV.mendeko Europaren hedapenarekin du zerikusia “arkeologia historiko” kontzeptuak. Teoria hau gune askotara zabalduta da Estatu Batuek duten indarra dela eta, hau teoria ia bakartzat hartuz. Nire ustez, guztiz oker dagoen teoria bat da hau eta zalantzan jartzekoa. Guztiz eurozentrismoa den historia batetaz ari gara historien hasiera Europarekin zerikusia duten gertaerekin lotzean.

Amaitzeko, azken puntuan esan dudana arabera, guztatuko litzaidake gehitzea ikuspegi debredinen batura bat egin eta ikertzea oso garrantzitsua dela. Hau da, eztabaida ez litzateke izan beharko ea ikerketa ikuspegi orokor batetik egin behar den edo eremu bakoitzean bertako ikerketa egin behar den. Ikuspegi orokor batetik ikertzea guztiz garrantzitsua da eremu desberdinen artean geratzen diren gertaerak elkarlotzeko eta aldi berean garrantzitsua da eremu bakoitzaren garapena ikertzea kanpo eremuen loturetatik kanpo. Honekin esan nahi dudana da, adibidez Amerikaren historian garrantzia hartzen du Europarren hedapenak baina horrek ez du esan nahi horretara mugatu behar denik.

2.PRATIKA

ARKEOLOGIAREN PERTZEPZIOA GIZARTEAN

Telebista, irrati, prentsan edota sare sozialetatik ematen dira gaur egun aurkikuntza arkologiko eta historiko izugarrien berri.

Beti aurkezten zaizkigu aurkikuntza hauek izugarrizko garrantzi duten aurkikuntza moduan, baina aurkikuntza guztiak garrantzi maila desberdinekin aurkezten dira eta batzuetan horrelako hedabideetan ez dira aipatu ere egiten. Horren arrazoietako bat, berria ematen duenaren helburua izan daiteke, hau da, bere helburua albiste hori ezaguna egitea eta jende askorengana iristea bada, ondare batzuei garrantzia handiagoa emango diete beste batzuei baino, gizartean edo haren inguruan, arrakasta handiagoa zerk edukiko duen pentsatuz. Kontuan izan behar dugu baita ere aurkikuntza aukitzen den lekuaren arabera ere bertako jabeen arabera aurkikuntza horren inguruan piztu daiketen interesak irabaziak ekarri ditzakela, lekua pribatizatuz eta leku turistiko bilakatuz.

Egoera honen aurrean, hainbat eta hainbat berri transmititzen dituzte egunero arkeologiaren inguruan. Berri horietako asko aurkikuntza txikiak izaten dira. Esate baterako, antzinako ontziak edo beste hainbat aztarna desberdin aurkitu dituztela helarazten da. Honen aurrean, ezagutza eta zabalkuntza handiagoa izaten duten aurkikuntzak, adibidez, antzinako herri berrien aurkikuntzak izaten dira. Nire aburuz, jendearentzat erakargarriagoa suertatzen da informazio gehien eman diezaioken aurkikuntza bat, eta hau ez bakarrik historian interesa duten jendearentzat, baizik eta jende komunarentzat ere bai. Honekin esan nahi dudana da, jendeari adibidez ez zaiola inporta edo gehiago kostatzen zaiola adibidez, garai konkretu bateko merkataritza nolakoa zen pentsatzea ontzi zati batzuk ikusita baina errezagoa dela interesa pista edo imaginazio gutxiago behar dela adibidez herri oso baten horma, irudi, idatzi batzuen aurkikuntza batzuen bitartez bertako gizartearen ohituren berri jakiteko.

Esandako guztia azalduta, prentsan aurkeztutako aurkikuntza baten eredu bat azalduko dut. Txinan aurkitutako garezurrari buruzko artikulua dago. Bertan azaltzen da, duela milioi bateko garezur bat aurkitu dela. Hezur honek, nahiz

eta batzuentzat garrantzirik ez eduki, izugarrizko informazioa eman dezake. Izan ere, Homo Erektus baten hezurra da eta honen bidez, duela milioi bat urteko gizakiak nolakoak ziren jakin dezakegu. Esate baterako, bere garezurra erreparatuz, ahoaren zatia aztertuz, elikadura eta jateko ohituren inguruko informazioa lor dezakegu. Hau da, honek duen hortz formen arabera, haien elikadura nolakoa zen jakiteko aukera dugu.

Nire iritziz, aurkikuntza hau azaltzen duen dokumentuari ez zaio beharrezko garrantzirik eman. Izan ere, oso ezaguna ez den orrialde batean dago argitaratua, beraz, albiste hau, honen inguruan interesatzen direnek soilik jakingo dute, haien informatuko direlako eta aurkituko dituztelako datuak aurkikuntza honi buruz. Honekin esan nahi dudana da, arkeologiaren inguruan informatzen ez den jendeari, ez zaiola berri hau inolaz ere iritsiko eta beraz, jende gutxi izango duela honen berri. Aldiz, aurkikuntza hau beste era batera zabaldua izan balitz, jende gehiagorengana iritsiko litzake eta behintzat, pertsona gehiagok izango zutela garezur honen berri. Izan ere, hoberen kontserbatutako garezurra dela azaltzen da dokumentu honetan eta hori oso datu esanguratsua dela deritzot. Gainera, nire ustez, azken aipaturako hori telebistan azalduko balitz, jende gehiago konturatuko zen aurkikuntza honen garrantziaz.



<https://www.larazon.es/cultura/20220928/3cqzxi4ybf7lhrwa4rzqfjbd.html>

Amaitzeko, etxetik gertu gelditzen zaidan aztarnategi bati buruz hitzegingo dut. Ekianberri Zestoan aurkituriko aztarnategi bat da. Aztarnategi hau esango nuke Euskal Herriko Historiaurrearen inguruko aurkikuntzarik garrantzitsuenetariko bat dela.



Bertara, ikastoletatik gain, familiarekin edo bakarka joateko aukera dago. Bertan hainbat aktibitate egiteko aukera dago. Labarretako margoak nola egiten zituzten ikasi, sua egiten ikasi edota historiarreko gizakien ehiza metodoak ikasteko aukera dago. Bestalde, labarretako margo originalak aurrez aurre esagutu ezin diren arren,

erreala ematen duen erreplika bat bisitatzeko aukera dago. Bestalde, esan behar da aztarnategi hau UNESCO-k Gizarte Ondare moduan izendatu zuela.

3.PRAKTIKA

ERDI AROKO GIZARTEEN ARKEOLOGIA, ANTZINATE BERANTIARRA ETA GOI ERDI AROA

Erromatar Inperioaren desagitea eta Erdi Aroko feudalismoaren sorreraren trantsizioa bi joera historiografikoak desberdintzen dituzte: Goi Erdi Aroa eta Antzinate Berantiarra. Goi Erdi Aroa epe luzea izan zen, V.mendetik IX.mendera arte. Epe aldi honetan, erromatar egitura politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak trasformatu ziren feudalismo bete betera heldu arte. Bestalde

Antzinate Berantiarra, Goi Erdi Aroaren barruan lehengo etapan kokatzen da, V.mendetik VII.mendera. Hemen atentzioa Inperio Erromatarraren desegituraketan jartzen da. Horregatik, Erromako eta Erdi Aroko adituakelkartzen dira ikerketan epe honetan.

Komentatu dudan Erromatar Inperioaren gainbeherarekin, Europako mundua aldatzen da. Hau da, Erromatar sistema aldatzen doa feudalismorantz. Trantsizio honetan erregistro arkeologikoa aldatzen joango da. Batetik, ezin da ukatu hiriak protagonismoa galtzen duela Antzinate Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan zehar eta egoera antzematen da hirien kopuruan, adibidez, Italiar penintsulan %30^a desagertzen da eta Hispanian %40^a. Bestalde, desagertzen ez diren hiriek aldaketa sakonak jasaten dituzte. Hala eta guztiz ere,, hiriak funtzio ekonomikoak, administratiboak, politikoak edo erlijiosoak mantentzen ditu eta, landa-inguruarekin erkatuz, guztiz desberdina izango da.

Ikusirik hiri-gune bakoitzak bere errealitatea duela eta orduan errealitate desberdin ugari zeudela, joera orokor batzuk aipatuko ditut.

Lehenik, okupatua dagoen esparruaren murrizketa ematen da, hau da, hiriaren perimetroa gutxitzen da, eta barrualdean azalera handiko hutsuneak daude, muturrezko kasuetan herrixkak izaten amaitzen direnak edo zuzenki desagertzen direnak.



Bigarrenik, hiriaren gotortzea hartu behar dugu kontuan. Ezegonkortasun politikoak, segurtasun eza eta gizartearen militarizazioa zela eta, arkeologiak dokumentatzen duen moduan harresi berriak eraikitzen ziren edota lehengoak zaharberritu.

Hirugarrenik, hiriko etxebizitza morfologia aldatzen da, eredu berriak islatzen dira. Domus, hau da, etxe pribilegiatu asko desagertzen joango dira eta beste batzuetan okupatzen dira familia askorekin patio komunalak inguratzen. Bestalde, antzinako material nobleak lapurtzen eta berriro erabiltzen dira beste egituretan. Ez dira egiten ia hargintza edo dekorazio handiko obra monumentalak, hauek sinplegoak dira, material galgorrekin eginak. Honek esan nahi du aristokrazia eta botere mekanismo berriak beste era batean kokatuak eta artikulatuak daudela.

Laugarrenik, espazio eta egitura politikoetan eman ziren aldaketa nabarmenak ditugu. Batetik, hirigintza antolaketak desagertzen da (erromatar sare-formako planta erregularrak eta trinkoak galtzen dira). Bestetik, espazio publiko asko helburu pribatuarentzat okupatzen da (ortuak sortzen dira hiriaren erdian, etxebizitza berriak, nekazaritzarako espazioak, zaborteak, nekropoliak...). Dena dela, zaborteak hiriaren dinamismo pixka bat nabaritzen da, harreman komertzialak eta industriagintza hondakinak agertzen baitira. Gainera, antzinako eraikin estrategikoak (termak, teatroak, foroak, tenpluak edo beste ikuskizunentzako elementu batzuk) erabilera gabe geratzen dira eta, geroago, moldatzen dira funtzio berriak izateko (etxebizitzak, gune-komertzialak, tailerrak...) edo harrobi bezala. Hiriaren eguneroko elkar-zentro nagusia lekualdatzen da foroetatik elizetara edo nekropolietara. Bestalde, estolda-sarea eta ura-edateko horniketaren sistema garatuak abandonatzen dira: mantentze-lanik gabe. Oro har, hiriak landatar-giroa hartzen du, eta botere politikoa makaltzen da.

Bostgarrenik, hiriak inguruan zeukan kontrola edo eragina galtzen du. Landa-guneko villen eta hirien arteko erlazio estua galtzen doa. Aldi berean, landa-inguruak bilakaera autonomoagoa dauka. Aldaketa handiak dokumentatu dituzte paisaiari eta partzelazioari buruzko ikerketek. Bistan denez, hiriak aldatzen da V. eta VII. arteko mendeetan. Baina, beste aldetik, bizantinoek (ekialdean eta hegoaldean, bizantinoen kontrolpean, hiriaren gainbehera ez zen hain traumatikoa izan), bisigodoek eta gero musulmanek hirian oinarritu zuten beraien egitura politikoa. Ezin dugu ahaztu fundazio berriak (Victoriaco, Recópolis) edo zaharberritze sakonak aurkitzen ditugula (Bartzelona, Kordoba, Valentzia, Tarragona edo Mérida). Landa inguruan ere aldaketa batzuk dokumentatzen dira, luraren antolakea eta ustiapenean. Antzinako paisai "erromatarak" tamaina handiko villae-en bidez antolatuta

zegoen neurri handi batean (beraz, hiriguneei lotuta) eta, maila txikian, izaera desberdinetako kokaleku sakabanatuak (vicus). Eredu hauek V. eta VIII. mende artean agortuko dira: aldaketa garrantzitsuak dokumentatzen dira arkeologiari esker, zeinek asentatze eta lurraldearen ustiapen modu berriak diseinatzen dituzten.

4.PRAKTIKA

ARO GARAIKIDEKO GIZARTEEN ARKEOLOGIA (Josu Santamariaren mintegia)

1.Zatia

Gaurkoan Josu Santamariak klasean emandako mintegiaren erreseina bat egingo dut. Hasteko Josu Santamariaren profila aurkeztuko dut. Josu Santamarina Otaola Historiako Graduko Aparteko Saria da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), eta Masterra Paisaiaren Kudeaketan: Ondarea, Lurraldea eta Hiria (UPV-EHU). Gaur egun, doktore-tesi bat egiten ari da, «Arqueología del Paisaje de la Guerra Civil en el País Vasco (1936-1948): materialitateak, memoriak eta gatazka-ondareak» izeneko. Iragan Garaikidearen Arkeologiari, Oraintsuko Gatazkaren Arkeologiari, Arkeologia Publikoari eta Memoria Historikoari buruzko hainbat proiektutan trebatu da eta ikertzaile gisa parte hartu du Espainiako Estatuan, besteak beste, Ondarearen Zientzien Institutuarekin (Incipit-CSIC) edo Aranzadi Zientzia Elkartearekin. 2016tik, Gerra Zibilaren Arkeologia eta ondarearen sozializazioa proiektua zuzentzen du San Pedro/Askuren mendian (Amurrio/Urduña, Araba/Bizkaia), hiru indusketa-kanpainarekin eta dozenaka sozializazio-jarduerarekin.

Bere mintegia 4 puntutan laburtzea izango genuke. Lehenik, Mundu Garaikidearen arkeologiak zer ikertzen duen azalduko dut. Hitz bakarrean esanda, honek hondakinak aztertzen ditu. Arkeologia honek ez ditu monumentuak bilatzen baizik eta hondakin marjinalak bihurtzen ditu monumentu. Hondakinak sortzeko 6 bide desberdin daude. Batetik, kolapso sistematikoa egongo litzateke. Bigarrenik, egintza sistematikoa, hau da gauzak egiteak sortzen dituen zaborra (zaborra beti izan da edozein giza jardueraren aztarna). Hirugarrenik, autofagia: proiektuak sortzen dira eta hauek bizi oso

laburra izaten dute, hau da, kapitalismoak proiektu asko kanibalizatu egiten ditu. Laugarrenik, hutsegitea edo porrota egongo litzateke (2008ko krisiak, Espainian paisaietan neo-hondakinak sortu zituen). Bostgarrenik, katastrofea, hau da katastrofe naturalek suntsitzen dutenean sortzen diren hondakinak. Eta seigarrenik, suntsipena edo ezabapena, gizakiaren ekintzek suntsitzen dutenean.

Bigarren puntuari dagokionean, arkeologia mota honek nola ikertzen duen azaltzen du. Hirugarren puntuari dagokionean, Mundu Garaikidearen arkeologiak non ikertzen duen azaldu zigun. Hauek oso hurbileko lekuetan ikertzen dute. Euskal Herrian adibidez, Aiaran (Araba) bala baten kaskilloa aurkitu zuten bere marka industrialekin. Hau hartzain txabola batean aurkitu zuten, karlistak egon ziren lekuetan. Beste adibide bat San Pedro mendia da: San Pedro mendia guda zelai bat izan zen; bertan trintxerak, munizioa, balak agertzen dira, baina baita objektu arruntak ere, kopak edo kooperatiba baten txapak, egunkari baten zatia, tenedorak, kutxarak, batzuetan miliziano batzuen txapak ageri ziren(miliziano Manuel mogrevo arnaizen txapa). Hau landa esparru batean dago. Frankistentzat San Pedro mendian oroitzapena ospatzen zuten. Gaur egun nekazaritza egiteko landa eremua bihurtu da. Franko hiltzean, galtzailean meoria ospatzeko mendia bihurtu zen eta gudariak eta hauen familiarrak hara joaten ziren eta horren adierazle dira ikurrinak, eta ardo botilak.

Amaitzeko, Mundu Garaikidearen arkeologiak zer ikertu beharko lukeen komentatu zen. Ideai desberdinak atera ziren baino garrantzitsuenak edo interesgarrienak honako hauek izan ziren. Batetik, migratzaileen arkeologiataz mintzatu ginen. Honek gaur egungo gerrak direla eta milaka pertsonak egin behar izaten dituzten migrazio mugimenduak aztertuko litzuke. Bestalde, etxegabeen arkeologia ere aipatu zen. Honek kalean bizi direnen egoeraren ikerketa bat egingo luke. Beste ikerketa mota bat, "botelloien" arkeologia komentatu zen; hemen drogen kontsumoa edota alkoholarena ikertuko luke.

Bereziki oso interesgarria iruditu zait gaia. Batiz bat hondakinen inguruko azalpena oso interesgarria iruditu zait. Kontuan hartu behar dugu hondakinak dinamika politikoak direla eta zenbait lekutan hondakinak izatea edo ez izatea puntu politikoa dela. Bestalde, hondakin marginal hauek monumentu bilakatzearen ideia oso interesgarria iruditzen zait; iruditzen zait hondakinak egotea edo ez egotea puntu politiko bat den moduan, Mundu Garaikidearen

arkeologiak aurkitzen dituen hondakinak monumentu bihurtzea eta hauek oroitzapenerako ospaizun izatea erepuntu politikoa dela. Hobeto azalduo naiz. Esan nahi dudana da, gobernuan edo udalean edo ikerketa taldearen aginpean momentuan momentu dagoen pertsonaren ideologia politikoak asko alda dezakeela hondakin bat oroitzapen monumentu bilakatzea edo ez. Ez dakit adibide garbiena izan ahal dezken baina nire ideia adibidez terrorismoaren biktimen oroitzapen monumentuen ikus daiteke. Momentuan dagoenaren arabera hauek oroitzapen monumentu bilakatu daitezko edo ez.

2.Zatia

<https://www.lavanguardia.com/vida/20191009/47879813717/hallan-bala-de-canon-de-la-guerra-civil-en-una-alcantarilla-de-carabanchel.html>

Berri hau hautatu dut gauza bat arraroa egin zaidalako. Ez du aipatzen inongo historialaririk edota arkeologorik. Komunikabideen partetik oso penagarria iruditzen zait ezer gehiago ez aportzea. Ematen du gaurko gizarteari bost axola zaiola gertakariak, horrelako aurkikuntza bat ezer izango ez balitz moduan.

MAD-GUERRA CIVIL

Hallan bala de cañón de la Guerra Civil en una alcantarilla de Carabanchel


REDACCIÓN
09/10/2019 10:57



Madrid, 9 oct (EFE).- Unos operarios que trabajaban esta mañana en la calle Antonio Leyva, en el distrito de Carabanchel, han hallado en una alcantarilla una bala de cañón de la Guerra Civil, que los artificieros de la Policía Nacional, los Tédax, ya analizan en el lugar.

Según han informado a Efe fuentes de la Policía Municipal, el hallazgo se ha producido poco antes de las 10:00 horas cuando unos trabajadores han encontrado el proyectil en una alcantarilla a la altura del número 24 de la calle Antonio Leyva con la calle de Sorbe.

Tras dar el aviso a los servicios de emergencias, agentes de Policía Municipal y de la unidad de Subsuelo y de los Tédax de la Policía Nacional han acudido al lugar. EFE



5.PRAKTIKA

HABITATU, ESTABLIMENDUAK ETA PAISIAK

Aztarnategi arkeologikoak edozein giza-jardueraren arrasto materialak kontserbatzen dituen leku mugatuak dira. Hauek, iraganeko gizarteak aztertzeko gune pribilegiatuak dira, gizarte horien jardueren isla zuzenenak baitira. Aztarnategiak ordea mota desberdinetakoak izan daitezke. Batetik, irizpide kronologikoko aztarnategiak ditugu, hauen artean historiaurrekoak, protohistorikoak, erromatarrek, Erdi Arokoak, Aro Modernokoak, Garaikideak... Bestalde, irizpide funtzionalen aztarnategiak ditugu, hauen artean ezarkuntzak edo establimentuak, ekoizpenerako espazioak, kulturako espazioak, nekropoliak... Kontutan izan behar dugu ordea bi irizpide desberdin hauek bildu daitezkeela aztarnategi berean.

Aztarnategiak kontzeptu moduan azaldu ondoren garrantzitsua da honen mugetaz, hau da, aztarnategien mugak ezartzearen inguruan hitz egitea. Aztarnategiak mugatzea garrantzitsua da honen gaineko ikerketa modu egokian emateko eta batez ere ondarea kudeatzeko. Muga hauek ezartzea ordea askotan ez da hain erraza hainbat arrazoi desberdin medio. Mugak lausoak dira gehienetan. Horrek eraman genitzake zuzentasuna galtzera eta mugatzeko asmotan informazio zehatz bat kanpo uzteara. Horregatik, mugaketa oro har baino, mugaketa zuhurren eta finena behar da ikerketarako kudeaketarako eta informazio erauste zein transmisiorako.

Aztarnategiaren orokortasunen gain, honen baitan ikerketa maila desberdinak egon daitezke edo ikerketa maila desberdinak ezarri ditzazkegu talde historiko bat ezagutzeko nahian. Alde batetik, etxebizitzak ditugu. Arkeologiaren hastepenetan etxebizitza pribilegiatuak baino ez ziren induskatzen, objektu ederrak errekuiperatzeko nahiarekin. Hori dela eta, etxeak esanahi gabeko gune moduan hartzen ziren, etxea edukiontzi bat bakarrik zen. Gehienez tipologiak ezartzen ziren, etxeen morfologiaren eboluzioa historian zehar ikusteko. Gaur egun ordea, etxebizitzek gizarte bat islatzen dute. Hori dela eta, funtsezko garrantzi dute ikerketa maila honek. Maila honetan gainera bai lurpeko erregistroa bai zutik mantentzen diren egiturak ikertu daitezke. Eraikin hauetan, askotan fase ezberdinak dokumentatzen dira objektu estratifikatuak direlako.

Horrez gain, materialtasuna irakurtzean eta interpretatzean hainbat aspektu kontuan hartu behar dira; espazioa inguru fisiko bezala, espazioa inguru sozial bezala eta espazioa inguru sinboliko bezala. Lehenengoan, materialak, eraikuntza hau eraikitzeke erabolitako teknikak, barruan aurkitzen diren objektuak, etab. aztertzen dira. Bigarrenean ordea, eraikin hauek gizarte edo familia jakin batean izandako erabilera, generozko banaketa eta beste hainbat aspektu aztertzen dira. Azkenik, hirugarrenean, esate baterako, etxea, boterea erakusteko tresna arkitektoniko bezala erabiltzen da. Hau guztiaz gain, gizartearen eboluzioa azter daiteke eraikin hauek ikertuz gero.

Bestetik, establimenduak daude. Etxebizitza multzo batek establimendu bat osatzen du. Multzo hauek mota desberdinetakoak izan daitezke: txikiagoak, handiagoak... Gaur egun bezala, jendea ez zen isolatuta bizi. Gehienetan, aztarnategiak eta establimenduak gauza-maila bera dira, hau da, komunitate historiko baten egunerokotasuna espazio batean kontzentratuta. Hala ere, argi izan behar da ez dela batere erraza establimenduak bere osotasunean ezagutzea eta ezta hauek definitzea ere. Izan ere, gotortua dagoen hala ez, espazio publikoa, espazio pribatuak, hau da, bizitokiak, etab. aztertu behar dira.

Hirugarrenik paisaia daukagu. Gehienetan arkeologiaren ikerketa-objetua aztarnategi-establimendu puntual bat da. Paisai ordea kategoria askoz zabalagoa da, lurraldean zehar sakabanatzen eta ugaritzen baitira adierazleak. Orduan, paisaia lurraldearen edozein zati da, eta honen izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreginarekin emaitza da. Paisiak hainbat osagai nagusi dauzka: lurraldearen elementu naturalak, lurraldearen giza-elementuak, haien arteko erlazioak, populazioaren pertzepzioa...

Amaitzeko, ikerketa maila desberdin hauek, hau da, etxebizitza, establimendua eta paisaia erlazionatzen diren eta bertako gizarte jarduera eta harremanak ikusi ditzazkegun aztarnategi kasu bat azalduko dut. Hau Vallecas (Madril) auzoko aztarnategi bat da. Hemen bertako paisaia eta gainera herri txiko horretako etxebizitza eta era berean establimendua (txabolak) ikusi ditzazkegu. Bertako etxebizitzak txabola txiki batzuk dira eta ikusi dezkegu nola

establimendu desordenatua den, hau da, txabolak orden bat jarraitu gabe daude kokaturik. Paisaiari dagokionean, hiri-paisai bat ikusi dezakegu.

Etxebizitzak:



Establimendua:



Paisaia:

